

noaua



PILAR ALKORTA ETA BEGOÑA ZUBIZARRETA GIPUZKOAKO SUKALDARI TREBEENAK DIRA BABARRUNAK PRESTATZEN

Pentsiodunen eta jubilatuen elkarteak antolatutako txapelketa irabazi dute / 18



NOAUA

Kirolean Euskaraz kooperatibak Usurbilen finkatu du bere egoitza / 08



NOAUA

Greba feminista orokorrak arrasto nabarmena utzi zuen herrian / 12



NOAUA

Usurbilgo talogileen egungo taldea errelebo beharrean da / 19



NOAUA

Eguberri kutsuko ekitaldiak iragarri dituzte Aginagan eta Santuenean / 19

URDAIRA

Sagardotegia

ABENDUAK 16, LARUNBATA
20:00tan BARRIKOTEA!

📞 943 37 26 91

📍 AGINAGA

*Astelehenak itxita

📱 @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com

MARCELO ATEAK

AURREKONTUA
ESKATU
konpromisorik gabe!!

·ATEAK ·ARMAIRUAK ·PARKET
·BINILOAK ·TARIMAK ·ZOKALOAK

USURBIL 609 47 36 79



USURBIL

O P T I K A

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!



943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



ganbonetako apaingarri eta
dekorazioan aukera zabala!

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

"Usurbildarren eta xiberotarren arteko loturak aurrera darrai"

Urtero moduan, Usurbilgo eta Aginagako kuadrilla bat xiberotarrekin bildu zen abenduko lehen asteburuan Urdiñarben.

Abenduko lehen asteburuan Zuberoa aldean izan zen Usurbildik joandako lagun talde bat, hango ikastoletako integrazio batzordearen aldeko elkartasun afaria sukaldatzen. 200 lagun batu ziren afarian eta han bizitakoaren berri helarazi digute ohar honen

bidez: "Usurbildarren eta xiberotarren arteko harremanak aurrera darrai eta aurreko asteburuan xiberotarrak Usurbilera etorri ziren moduan, oraingoan gipuzkoarrak gerturatu dira Xibero aldera. Afarian ez zen musikarik falta izan eta Urdiñarben duela



Hango lagunekin batera, 200 pertsonentzako afaria prestatu zuten Urdiñarben.

gutxi arte ospatzen zen Musikaren Egunak 30 urte bete zituzenez, irudiz eta bidez osatutako proiektzioa ere aurkeztu zuten".

Ohiko moduan, afarian bildutako dirua hango ikastolako integrazio batzordearentzat izan zen.

Otarren banaketa

Gogoan izan, bestalde, Xiberoako ikastolen aldeko otarrak igande honetarako, abenduaren 17rako NOAUA! Kultur Elkarteak antolaturiko San Tomas azokan eskuratu ahaliko dituzuela, Nafartarrak taldeak jarriko duen postuan.

Garbigune mugikorra, Zubietara

Abenduaren 14tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Abenduaren 21ean osteguna, garbigune mugikorra Kalezarre-eramango dute.

Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen

Usurbilen ezaguna dugun zarratza sortzaileak ikusgai izango ditu bere artelan berriak Artzabalen. Datorren urte hasierara arte egongo dira bere lanak bertan eskegita.

"Nekez" izena du Gure Pakea elkartearen egoitzako jatetxean bisita ditzakezuen bere bildumak.

Aurtengo azken NOAUA astekaria, abenduaren 22an

Eskuartearen duzun astekari honez gain, beste bat argitaratu dugu, urteko azkena, abenduaren 22an. Aldizkari horrekin argitaratu ditugu egutegia eta gabonetako gehigarria. Oharrik izanez gero, abenduaren 18a baino lehen helarazi: 943 360 321. erredakzioa@noaua.eus

1947ko kinto bazkaria abenduaren 17an, ez 19an

1947. urtean jaiotakoak Artzabalen elkartuko dira igande honetan (abenduaren 17an). Bazkarira joan nahi duenak, aurrez eman behar du izena. Piliri deitu 678 368 980 telefono zenbakira edo Anari bestela, 637 989 414.

Kontuan izan izena emateko epea lehenago itxiko dela.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkatea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

Azalaldatzen (3)

Oin-soinuak entzun ditut. Bat baino gehiago etorri dira bisitan. Ez nuen espero halako ospea-edo izan nezakeenik, baina tira, guztiok gara nahi duguna imajinatzen libreak. Aitortu behar dut gero nagia sartu zaidala, eta ardiak zenbatzen hasi naizela nor izan daitekeen pentsatzen jarri beharrean. Begiak estalita, gorputza aulki bati lotuta, ezer askorik ezin dezaket egin. Horregatik, lo-kuluxka egitea ideia ona da. Baina ditxak ez du halakorik nahi.

Helioz mozkortutako aho-tsek pottokiz inguratuta nagoela pentsarazi naute, eta beraz, nik izan behar dut pelikulako gaiztoa.

Gure sekretua ezagutu duzu, hasi zait aita pottokia. Hori izan da nik imajinatu dudana, pottokiek bahitu nautela, eta horren egoera makabroan egonda, ba barre egin dezaket horren kontura.

Eta azalaldatze guztiak direnez zerbaitenak, hau, pottokiena.

Nik jolastzat nuena, istant batean aldatu da generoz. Txutxu-mutxuen kontua broma hutsa zen, edonork jakin dezake idazten dudana ez dela benetan erreala. Errealitatearekin antza pixka bat duen edozer nahikoa da edonor salatzen, bahitzeko, jipoitzeko. Pottoki indartsuak izan behar du zera esan duena: "Hostia bat eman nahi diot". Eta herri zibilizatu batean bizi nintzelakoan.

Zin dagit elkarriketatzen saiatu naizela egoerak bertarik utzi ez arren. Nirekin

adarrak jartzen dituen emaztearena Georges Brassensen abesti ezagun batean oinarrituta zegoen. Ziur herria oreinez beteta dagoela, baina zergatik naiz ni erruduna?

Ez da horregatik, jarraitu du beste pottoki batek. Horrek ez digu axola.

Filosofoa izango da, beharbada. Hain da gai filosofikoa axola duena eta ez duena bereizteko lerroa jartzea. Halere, hori ez da nire gaia, eta segituan alboratu ditut pentsamenduak hortik. Memoria egiten hasi naiz, ea zer demontre idatzi ote nuen herriko jendea hainbestearaino haserrarazteko. Ez zait ezertxo ere bururatu. Ziurrenik emandako kolpearengatik izango da, ze buruko kolpeek eragina izaten dute horrelakoetan.

Sagardoa urarekin nahasten zutenei buruz zerbait idatzi nuen. Ekoizpena ugaritze aldera, eta sagarren prezioak igo zirenez, ezin zutela herriko zein kanpoko eskaria ase. Istoria are katramilatsua gora zen, baina ñabardurak ez datozkit gogora, eta hobe beste une baterako uzten badut.

"MUNDUAN GEROZ ETA GUTXIAGO DAUDEN HONETAN, POZGARRIA DA NORBAITEK ZERBAIT ZENTZUZKOA ESATEA. NI EZ NAGO ZENTZUDUNA IZATEKO EGOERAN"

Akaba dezagun, eta bakea guztiontzat! Gu ez gara pelikuletako kriminal ergelak bezalakoak. Hil dadila jakin gabe zein izan den bere bekatua.

Pertsona listo bat. Munduan geroz eta gutxiago dauden honetan, pozgarria da norbaitek zerbait zentzuzkoa esatea. Ni ez nago zentzuduna izateko egoeran, are gutxiago pentsatuta pottokiz inguratuta nagoela, eta burutik pasatuko lehen kirtenkeria bota dut.

Hil nazakezu, baina inoiz ezingo duzu adarbakar bat hil.

Ez ditut haien aurpegiak ikusi, baina barregarriak behar lukete. Nire irudimenean, behintzat, poesia hutsa dira. Azkenaldian egindako poesiarik onena. Niri buruzko Wikipediako artikulua eguneratzen dutenean, ipin dezaketela horixe izan zela idatzitako olerkirik gorenena.

Lurrean bukatu dut. Merezita neukan, normala da. Ni ere pottoki bat banintz, jesukristoren ukabildakada emango niokeen halako gauzak esaten dituenari. Izan ere, pottokien herrixkako bakea asaldatzen duen gizona zer beste merezi du? Azaleko gaiztakeriarik gabeko gizartea, trapu zikinak norbere etxean gordeta dardela, diskrezioaren izarapean segurtasun-sentsazio horrekin. Bat-batean, izara kendu, eta bat biluzik sentitzen da. Ba horixe, merezita.

Erorketarengatik, begietako zapia pixka bat mugitu zait, eta aurpegiak ikusi ez badizkiet ere, oinetakoak ikusi dizkiet.

Helduentzako saio filosofikoa

Hausnarketarako gune askea, filosofatzea helburu duen saioa antolatu du Oinherri Herri Hezitzailea elkarteak osteguneko, abenduaren 14rako 18:00etan Potxoenean helduentzat. Galdera batek abiarazten duen iritzien elkartrukea sustaturiko hitzordurako izena aurrez eman ahalko da usurbilkultura.eus plataforman. 15 laguntzako lekua egongo da.

Literatura emanaldi musikatua Joseba Sarrionandiarekin

Joseba Sarrionandia eta Joxe Mari Iturralde idazleak, Iñar Sastre musikaria eta Olatz Prat abeslaria batuko dituen literatura emanaldi musikatua antolatu du Usurbilgo Udalak ostiral honetarako, abenduaren 15erako 19:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrerak aurrez eskuratu ahalko dira 3 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman. "Pianoa, kantua, olerkia... nahasmen hunkigarria", aurreratu dute antolatzaileek.

Gaztelekutik Txuri Urdinera

Donostiako Txuri Urdinera irteerak antolatu dituzte Gaztelekutik abenduaren 28an eta urtarillaren 4an, 16:00-21:00 artean. Hitzorduotan parte hartzeko ezinbestekoa izango da guraso baimenak Gaztelekuan bertan jasotzea. Informaziorako: 688 813 853 gaztelekuausurbil@gmail.com



Gurasoen baimena behar da.

Geure Osakidetza Donostialdean

ITZIAR MUJIKA, DOPA (DONOSTIALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE)

Donostialdeko ESI, Osakidetza erakunde handiena da. Herri askok osatzen dute ESIa: Oiartzun, Lezo, Errenteria, Pasaia, Lasarte, Donostia, Urnieta, Andoain, Astigarraga, Hernani, Usurbil, Aizarnazabal, Zestoa, Getaria, Zumaia, Zarautz, Orrio eta Aia herriek. Herri hauetako herritarrei osasun-arreta ematen zaie.

Bada, dagoeneko entzun dugu, orain Gabonak direla eta, abenduaren 4tik aurrera berrantolaketa izango dugula: ordutegia mugatuko digute. Hau murrizketa da eta, maila guztietako langileak ez dira bermatzen zerbitzu

guztietan, beste murrizketa bat. Horrek guztiak osasun-arretan eragina badu, baita geure osasunean ere.

Osakidetza arduradunek osasun langileak bilatzea zaila dela jakinarazi digute, bereziki zaila sendagileak lortzea.

Etengabe sendagilerik ez dagoela entzun dugu eta, hainbeste aldiz esanez guk hori sinistea nahi dute. Baina non daude sendagileak? Desagertu egin dira? Nire galdera hauxe da: zergatik da gero eta zailagoa Osakidetza lan egiteko langileak bilatzea? Zer gertatu da? Oraindik ez dut entzun enpresa-privatua horrelako gabezia dagoenik, aintzat hartuta gero eta enpresa gehiago daudela eta gero eta lan handiagoa dutela.

Badira 10 urte baino gehiago zer iritsiko zen konturatu ginela. Alde batetik, Osakidetza langileen adinagatik erreleboa eta gizartearen aldaketa eta zahartzea. Zer egin dute? Zer plangintza egin dute? Goi-goiko GEURE OSAKIDETZAKO arduradunek zer egin dute?

Gainera, arduradun politikoak ez dira aldatu. Iritsi gara iritsi garen egoerara hauek kudeatzen. GEURE OSAKIDETZA utzi duten bezala eta haiek berak konpontzeko gai izango dira?

Ba bai, egoera kaskarra egin da, eta nola gainera. OSAKIDETZARI zuen prestigioa kendu diote eta geure osasunaren bizkarretik negozioa egiten da. LOTSAGABEKERIA.

Sailburuak, Sagardui andereak, hau guztia konpontzeko erremedioa baduela esaten digu: publiko-privatuen lankidetzak.

Ez nago ados, ez. Lankidetzak hau privatizazioa da, geure dirua, diru publikoa, esku pribatuetan jartzea da eta, bide batez, GEURE OSAKIDETZA ahulagoa eta suntsitua geratzen da.

Gero eta langile gutxiago Osasun Zentro guztietan eta lan gehiago egiten. Lan postu berriak pribatu-enpresetan, lan baldintzak eskasak eta lan egiten dugun gehienok emakumeak.

Osasun arazoa izanda, nora joango gara? Ahal dutenek agian pribatura? Nahikoa da.

Osakidetza indartu. Osasungintza geurea da. Ez ostu. Ez suntsitu.

Zertarako erabiltzen dute euskara?

ORKATZ

Eguneroko otordua egin behar dugunez, erosketak egitera Eroskira joan naiz. Bertan aukeratutakoa erosi eta etxera itzultzean konturatu naiz, ordaindu ondoren eman didaten tiketetan, euskarak ez duela azaltzen erdarak dioena. Egoeraren aurrean, udaleko euskara batzordera joan eta Hizkuntz Eskubideen

Behatokiaren bidez salaketa jarri dut.

Handik denbora batera iritsi zait erantzuna, non esaten zaidan: "bezeroari jakinarazi nahi genioke, tiketetan bertan dauden espazio-arazoengatik, ezin dugula informazio guztia bi hizkuntzatan sartu. Hala ere, arduradunei helarazi diegu erreklamazioa, etorkizuneko garapenei begira kontuan har dezaten".

Hitz hauek irakurtzean, zenbait galdera pilatu zaizkit eta aletxo batzuk itsatsi nahi

ditut. Eskuetan dudak erantzun orrian idatzi diren hizkiak, gutxienez 8 neurrian daudela irakurri eta ikusten dudanean, benetan sinesgarria da, informazio guztia bi hizkuntzatan sartu EZ izana espazio-arazoa dela? Ez al da izango, bertako euskara bigarren edo auskalo zenbatgarren jartzeko ahaleginean kokatu daitekeen beste ataltxo bat? Ez al dugu bezeroak, erdarari ematen dioten garrantzia berarekin gutxienez, euskaraz jasotzeko

eskubiderik? Etorkizuneko garapenei begira beste zenbat hamarkada egon behar gara? Eroskik ateratzen duen tiket bakoitzean, zenbat hizki neurri ezberdin ateratzen ditu? Ez al du euskaraz, gutxienez, neurri eta maila berdina eduki behar?

Ez noa galderetan gehiago luzatzera, bakarrik esan, aspaldi aspertu nintzela, euskaldunok gainontzekoei "ulertu" behar izateaz. Nik salaketa jarri dut, eta zuk ere egin dezakezu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus





Iragan azaroaren 4ko Mundualdian aurkeztu zuen Aniztasun Kontseiluak "Hareman" egitasmoa. NOAUA!

Hartu eta eman, denon Usurbil eraikitzeko

Usurbil harrera herri izateko bidean, "Hareman" izeneko mentoría programa berrirako boluntarioak behar dituzte.

Hartu eta eman, eman eta jaso, joan-etorriko etenik gabeko hartueman, parez parekoa, afektiboa eraikitzea sustatu nahi dute herrikideen artean nahiz herriarekiko, denon Usurbil eraikitzeko bidean. Izan ere, "harremanetan guztiok hartu eta ematen dugu", oroitarazi digute "Hareman" izeneko egitasmoaren sustatzaileek. Usurbil harrera herri bilakatzeko egiten ari den bidearen baitan ekarpen eraginkorra egitera datoz, 2024. urte hasieratik abiarazi nahi duten gizarte mentoría programa honekin. Bertan jai

eta bizi edota duela denbora dezentetik herri honetan sustatuak dauden herrikideak eta gure artera bizitzera etorri berriak edota denbora bat Usurbilen daramatenak baina herriarekiko atxikimendua izatera heldu ezin izan direnak, elkar ezagutu eta elkarren artean harremanetara dator Usurbilgo Udaletik sustatu eta Zabalduz gizarte ekimeneko kooperatibak dinamizatuko duen egitasmoa, azken finean, "Usurbil denon herria izan dadin", Loira Manzani kooperatibako kideak hedabide honi azaldu dionez.

Aipatu moduan, Usurbil harrera herri izateko abian diren beste egitasmoen osagarria da "Hareman", gure artera datozenen benetako inklusio prozesuan eragin nahi duena. Izan ere, sarritan Usurbilen bizi direnak eta Usurbila haien bizi proiektua garatzera datozenak, "elkarrekin bizi gara bai, baina ez dago eguneroko benetako harremanik". Edota behar duenari laguntza eskaintzera mugatzen da hartueman eta "hori ez da inklusioa", Manzanik gogorarazi digunez. Inklusioak beste urrats bat ematea derrihortzen du Usurbila datorrenarentzat; "bertako herrikideek datorrena ezagutu nahi dutela sentiaraztea, haien bizitza-

"HARREMANETAN GUZTIOK HARTU ETA EMATEN DUGU"

ko eta herriko parte izatea nahi dutela adieraztea". Zubi lan hau egitera dator "Hareman". Usurbilen bada dagoeneko harrera zerbitzua, gida gure artera datorrenarentzat, "baina zer egin dezake herriak harrera herri izateko? Osagai komunitario hau falta zuen" eta horretara, hutsune hau betetzera dator mentoría programa hau.

Urte erdiko programa, abiapuntu

Egitasmo honetan parte hartu nahi dutenek sei hilabeteko tartea izango dute elkar ezagutu eta harremana eraikitzen joateko. Astero egun batean, harreman horren bi aldeetan daudenek partekatu ditzaketen zaletasunetarako denbora hartuko dute. Horregatik, interes beretsuak dituzten pertsonen arteko hartuemanak eraikitzeaz arduratuko da Zabalduz, hasierako zubi lana egiteaz alegia.

Urte erdi horretan zehar, bidelagun izango dute Zabalduz kooperatibak eskainiko dien aholkularitza teknikoak, hartuemanaren jarraipena egin, ebaluatu eta sor daitezkeen zailtasunak bideratzen saiatzeko. "Harremanaren mugak zeintzuk diren ondo ez ulertzea gerta daiteke. Edota bata besteari idatzi eta erantzunik ez izatea", bi adibide baino ez dira Loirak aipatu dizkigunak. Zailtasun hauei erantzuteko laguntza eskainiko dute.

"Benetako herrikide sentiarazteko"

Mentoría honen programaren onurak askotarikoak dira, baina batez ere Manzanik nabarmendu digunez, "Hareman" honen partaide guztiak abe-

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak egiten dira
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

Urantz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
urantz@urantz.com USURBIL

→ rasten ditu; Usurbilera bizitzera etorritakoa, nahiz bertan bizi dena. Sarritan dau den hormak apurtzea ere, herrikide guztien arteko benetako elkarbizitza gauzatzen laguntzen du. Izan ere, Zabalduz kooperatibako kide Loira Manzanik hedabide honi nabarmendu dion moduan, "denok irabazten dugu benetako elkarbizitza sustatuta". Ildo horretan, ekimen honek "estereotipo eta aurreiritzi asko hausten laguntzen du". Usurbilen bizi denaren tokian jarrita, "zure ikuspegia zabalduko duzu, beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera izango duzu. Baita sozialki inplikatzeko ere. Izan ere, askotan hala egin nahi izaten dugu baina ez dugu jakiten nola egin". Horrekin batera, gainera, "benetan zureak diren hizkuntza, ohiturak, tradizioak... datozenekin parteka ditzakezu".

Herrira iritsi berria izan edo bertan bizi arren, Usurbilgo bizitzan murgiltzerik izan ez duenaren kasuan, bidelagun duen "erreferentziatzeko pertsona horren sare soziala" bereganatu dezake. Loiraren esanetan, "zuk sei hilabete horietan ikusi ahal duzu, harreman horretan funtzionatu baduzu herriko beste pertsonekin ere harremandu zaitezkeela". Hartuemanean ahalduntzea sustatzen du mentoria programa honek, azken finean, "benetako herrikide sentiarazteko". Bestela esanda, "zaurgarritasun egoeran zena mota horretako harreman gehiago naturalki eraikitzeke ahaldunduago sentitzeke".

Horretarako ordea, gakoa da sei hilabeteotan eraikitzen joandako hartueman. Ahal-



Loira Manzanik, Zabalduz kooperatibako kidea "Hareman" egitasmoa aurkezten, iragan azaroko Mundualdian. NOAUA!

duntze hori "elkarrekiko aitor-tza dagoenean gertatzen da" Manzanik gogorarazi duenez. "Pertsona bat zurekin dagoenean, zurekin egon nahi duelako, zu ere ahalduntzen zara". Mentoria programa horrek inklusiorako, konfiantzazko eta afektuzko harremanak gune hori eskaini nahi du. Oinarrian, ordea, elkar ezagutu eta elkarrekin egon nahi duten bolondresen arteko hartueman egongo da. Horizontaltasuna harremanean, parez pareko hartueman. "Herri bizitzan esperientzia gehiago duen pertsona batek gutxiago duena, zaurgarritasun egoeran dagoena laguntzen duela diogunez, berti-

kaltasun egoera datorkigu burura". Eta ez dute botere harremanik sustatu nahi. Izan ere, "harreman guztietan eman eta jaso egiten dugu, hartu eta eman".

Barneratua dugun ohiko zaurgarritasun kontzeptua ere zabaldu egin nahi dute. Huraxe aipatu eta "berehala profil zehatz batera goaz". Egitasmo honetan zabaldu egiten da zaurgarritasunaren izaera. "Mentoria programa honetan asko sinesten dut, benetako inklusiorako, benetako elkarbizitzarako oso baliagarria da", Loiraren esanetan. Sei hilabeteko prozesuaren ostean, mentoria programa honen itxiera egingo da. Baina, noski, urte erdi

lehenago eraikitzen hasitako hartuemanak ez du zertan hor eten behar. "Naturalki segi dezake", Loirak aipatu digunez.

Izen-emateko deia

Boluntarioen hautaketa prozesu betean da egitasmoa. Herri osora zabaldu nahi dute egitasmoa baina lehentasunezko herrikideak jotzen dituzte, familiak, nerabeak, bakarrik heldutako gazteak, edota baita "zaintza lanetan interna gisa diharduten emakumeengana heldu nahi dugu". Herrian bizi nahiz bizitzera etorritakoa izan, izen-emateko bideok dituzue: hareman@zabalduz.eus / 747 490 194. Hortik aurrera, izena emandakoekin bilduko dira egitasmo honen sustatzaileak. Formazioa jasoko dute gero.

Egitasmoa jendaurrean aurkeztu ostean, urte hasieran abiarazi nahi dute proiektua Usurbilen.

"BENETAKO INKLUSIORAKO OSO BALIAGARRIA DA"

"URTE HASIERAN ABIARAZI NAHI DUTE PROIEKTU HAU USURBILEN"

Antxeta
 TABERNA
 egunero irekitzen dugu!
 eguneko menua · asteburuko menua
 oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
 paellak enkarguz!
 943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ANORGA TXIBI S.L
 KRISTALDEGIA
 · komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · ispiluak
 · dutxa-itxiturak eta irristailuak · barandak · kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ARRANDEGIA
PELLO
 9:00-13:30
 ASTEARTETIK LARUNBATERA
 PUNTAPAX 7, 650 31 31 91



Kirolean Euskaraz kooperatibaren egoitza Zubiaurrenea kalean da. Irailean hasi ziren bertan lanean.

"Kirola oso eremu garrantzitsua da euskara sustatzeko"

KIROLEAN EUSKARAZ KOOPERATIBAKO KIDEAK

Aholkularitza, formazioa, komunikazioa, kudeaketa administratiboa... Askok dira kooperatiba honek eskaintzen dituen zerbitzuak. Usurbilen ezarri dute egoitza, Zubiaurrenea kalean.

Kirolean Euskaraz proiektu kooperatibo bat da. Ekintzailletza Kooperatiboko Eskolaren bidez eratutako dena. Zuen jarduerak hiru osagai nagusi ditu: psikologia, kirola eta euskara. Oker ez bagaude, aholkularitza eta formazioa eskaintzen duzue, ezta?

Oier Berra: Ondo laburbildu duzu. Dena den, kooperatiba martxan jarri aurretik ere lan-kideak ginen. Txominek eta biok Aritzekin kolaboratu izan dugu KEES metodologian (Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzeko egitasmoan). Gaur egun lan ildo ezberdinak ditugu. Aholkularitza da horietako bat. Institutuzioekin eta kirol elkarteekin kolaboratzen dugu. Federazio ezberdinekin

ere kolaboratzen ari gara. Futbolekoarekin adibidez, UEFA entrenatzaile ikastaroko materiala euskaratzen ari gara.

Aritz Olagoi: Donostiako eta Aretxabaletako Udalekin lizitazio publiko batekin ari gara lanean, bertako kirol elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin. Aholkularitza eta komunikazio esparruetan ere kolaboratzen dugu beste kirol elkarte batzuekin.

Oier Berra: Aholkularitza, komunikazioa, itzulpen gintza, kudeaketa administratiboa... Hortxe ari gara.

Aritz Olagoi: Beti ere euskara ardatz hartuta. Kooperatiba bihurtzeak beste lan ildo

batzuk irekitzeko aukera eskaini digu.

Kirolaren arloan, euskara sustatzeko premia handia al da?

Txomin Otaegi: Lan asko dago egiteko, bai. Kirola gero eta garrantzitsuagoa da gure gizartean. Gero eta klub gehia-

go dago, gero eta ume gehiago sartzen dira kirol taldeen egituretan... Euskararen alde egiteko eremu oso ona da kirola. Euskara beti lotu da eskolarekin edo eremu akademikoarekin, eta kirola da eremu horretatik at dagoen jardueretako bat. Eta oso garrantzitsua da eremu hori euskara sustatzeko. Horretan datza gure lana, euskararen sustapenean.

Kirol elkarteak, hezitzaileak, kirolariak... Non jartzen duzue fokua edo norekin egiten duzue lankearik handiena?

Oier Berra: Guk batez ere kirol hezitzaileekin egiten dugu lan. Formakuntza eskaintzen diegu, jarraipen bat egiten diegu eta estrategia bat zehazten dugu beraiekin.

Formakuntza bada zuen lan ildoetako bat.

Oier Berra: Bai. Hizkuntzari lotutakoa beti ere.

Badugu inpresio bat. Gazteekin lotutako jardueren artean, kirolarena izango da erdaldunena. Aisian, kulturaren, ez bezala. Hala da ala inpresio oker bat da? Askok aldatu al dira gauzak azkenaldian?

Oier Berra: Baliteke. Eremuaren arabera izaten da. Errealitate ezberdinak ikusi ditugu.

Aritz Olagoi: Neurri batean ados nago. Alderatzen baditugu kultura eta kirola, kirola erdaldunagoa izan da historikoki. Baina akaso euskalgintzatik ez zaiolako hainbeste erreparatu kirol arloari. Eta ez da eragiteko esparru gisa irudikatu. Gaur egun, gero eta nabarmenagoa da haur eta gazteen artean kirola dela aisialdiko jardueraren nagusia. Eta hor beharra handia da. Entrenatzaileak aipatu dituzu. Orain dela gutxi arte, entrenatzaile izateko ikastaro gehienak edo guztiak ez esatearren, gaztekeraz izaten ziren. Gaur egun, Gipuzkoako Futbol Federazioak antolatzen dituen UEFA-B eta UEFA-C futbol entrenatzaile ikastaroak eus-

"INSTITUZIOEKIN ETA KIROL ELKARTE EZBERDINEKIN KOLABORATZEN DUGU"

OIER BERRA



Txomin Otaegi andoaindarra, Oier Berra antiguotarra eta Aritz Olagoi zubietarra, Kirolean Euskaraz kooperatibako kideak.

→ karaz egin daitezke. Formazio hori euskaraz jasotzen dutenek gaitasun gehiago izango dituzte entrenamenduetan euskaraz aritzeko.

Eusko Jaurlaritzak ere plan estrategiko bat diseinatu zuen kirolean euskara sustatzeko eta horrek ere bere eragina izan du hainbat federazioetako ikastaroen antolaketan. Horren harira, hainbat federazioekin ari gara kolaboratzen: txirringitaritzan, xakean, gimnasia erritmikoan, ... Eurek antolatzen dituzten ikastaroak aurrerantzean euskarazkoak ere izan daitezke.

Irailaren hasieratik kooperatiba gisa ari zarete lanean. KoopFabrikaren bidez jaso duzue formakuntza. Ekintzaitza Kooperatiboko Eskolan parte hartzeak zer suposatu du zuentzat?

Aritz Olagoi: KoopFabrikan egon izan ez bagina, gaur egun ez ginateke kooperatiba izango. Guk hirurok elkarrekin kolaboratzen genuen proiektu puntualetan. Baina antolaketa propiorik gabe. Bakotza bere etxetik aritzen zen. Ez genuen norabide finko bat. Eta KoopFabrikak lagundu digu zer nahi genuen edo zer egin genezakeen argitzen. Eta egin genezakeen horri nora-

bide bat ematen. Eta bide batez, juridikoki eta legalki eman beharreko pauso horiek guztiak argitu dizkigute. Kooperatibaren eratze-prozesuan ezinbestekoa izan da eman diguten laguntza.

Ekintzaitza Kooperatiboko Eskolan izena eman ez eman, zalantzan dagoenari zer esango zenikete?

Aritz Olagoi: Izena eman, dudarik gabe. Gure kasuan, astean bi saio izaten genituen. Lehen bi hilabetetan formazioa jaso genuen eta beste hiruzpalau hilabetez kooperatiba osatzeko laguntza jaso genuen.

Kontabilitatea, lan taldearen garrantzia, lan taldearen antolaketa... arlo asko ukitzen dira. **Txomin Otaegi:** Gure kasuan, ez genuen oso argi zer nolako egitura eman nahi genion gure egitasmoari. Eta ikastaroak bultzada handia eman zigun.

"KIROLAK GARRANTZIA HANDIA DU. EUSKARAREN ALDE EGITEKO OSO EREMU EGOKIA DA"

TXOMIN OTAEGI

Kooperatibaren ildo ideologikoarekin bat gentozen baina ikastaroak konfiantza eman zigun eta gure kasuan oso garrantzitsua izan da. Azkeneko bultzada hori behar genuen.

Ekintzaitza Kooperatiboko Eskolaren edizio berri bat

KoopFabrikak antolatzen du eta aurten Donostiako Cristina Enea Fundazioan egingo da. Abenduaren 11n hasi eta otsailaren 7ra arte luzatuko da. Izen-ematea dagoeneko zabalik da. Ekimen honen bidez, "proiektu ekonomiko kooperatiboak eta komunitarioak sortzeko prozesuan laguntza ematen dugu". Informazio gehiago info@koopfabrika.eus e-posta helbidean eska daiteke.

"KOOPERATIBA ERATZEKO ORDUAN KOOPFABRIKAREN LAGUNTZA EZINBESTEKOA IZAN DA"

ARITZ OLAGOI

"Usurbilgo komunitatearen parte izan nahi dugu"

Kirolean Euskaraz kooperatibaren egitasmoaren egoitza Usurbilen ezarria duzue. Dagoeneko lanean ari zarete bertan. Zein izan da hemen ezartzeko arrazoi nagusia?

Txomin Otaegi: Kopapen geografikoa. Ni andoaindarra naiz, Aritz Olagoi zubietarra eta Oier Berra antiguotarra.

Oier Berra: Oso testuinguru egokia dago herri honetan lan ildo hauek denak garatzeko. Ere oso soziolinguistikoa ere oso egokia iruditzen zaigu.

Aritz Olagoi: Usurbilgo Udalak ekintzaitza proiektu berriak sustatzeko dirulaguntza lerro ezberdinak ditu. Alokairua ordaintzeko garaian, lehen bi urteetan zehar zati handi bat Udalak asumitzen du. Eta egitasmoa martxan jartzeko orduan ere, hasierako gastuei aurre egiteko diru-laguntza eskaintzen du. Faktore hauek ere garrantzitsuak izan dira.

Horretaz gain, komunitate honen parte izan nahi dugu eta pixkanaka bertan errotzeko borondatea dugu.

Bestetik, kooperatibaren sortze prozesuan gauden honetan, oraindik altzariak eta bestelakoak falta zaizkigu egoitzan. Herriko saltokietara joko dugu behar duguna eskuratzeko.

EUSKARAREN EGUNA, IRUDITAN



Abenduaren 3a jai zenez, abenduaren 1ean ospatu zuten Euskararen Eguna.



Jaione Eskudero musika irakasleak gidaritu zuen Udarregikoen emanaldia.



Euskara kantuan plazaratu zuten, ezagunak zaizkigun hainbat abestien bidez.



Euria tarteko, Mikel Laboa plazan beharrean Usurbilgo frontoian aritu ziren.



Aginagako Eliza Zaharreko Euskararen Gala ikusgarria izan zen.



Arte diziplina ezberdinetako sortzaileen topagune bilakatu zen Eliza Zaharra.



Goraino beteta zen aretoa. Argazkian, EH Sukarrako Norton kantaria.



Antton Telleria umoregilea ere Euskararen Galan aritu zen.

San Tommas eguna

Abenduaren
igande goizez **17an**

**Babarrun eta
sagardo lehiaketa**



- 11:30 AZOKAREN IREKIERA eta UMEENTZAKO APAINGARRI tailerra
(ahal bada pinaburu bat ekarri)
- 12:00 USURBILGO **BABARRUN ETA SAGARDO LEHIAKETA**
 - 13:30 SARI BANAKETA
- Sagardo dastaketa, **azoka**, **talok**, **gaztain erreak**, **gozogintza** postuak eta **OSTOLAZA** eta **LARRAÑAGA** trikilariak zuzenean

noova



Usurbilgo Uakela



Greba feminista orokorrak arrasto nabarmena utzi zuen herrian

Herria ez zuen guztiz geldiarazi, baina begi-bistakoa izan zen Euskal Herriko Mugimendu Feministak hainbat eragileren babesarekin deitu zuen zaintza eskubide kolektiboaren aldeko grebak Usurbilen izan zuen jarraipen zabala.

Ez zen ohiko osteguna izan azaroaren 30ekoa. Lanean has- teko unea heldu zenean, plan- to egin zuten hainbat eta hain- bat herrikideek. Azaroaren 30ean ez zuten klaserikasleek, langile hainbatek ez zuten haien eguneroko lanposturako bidea hartu. Euskal Herriko Mugi- mendu Feministak zaintza eskubide kolektiboaren alde deitutako greba feminista oro- korrak begi-bistako arrastoa utzi zuen Usurbilen. Herria ez zuen erabat gelditu, baina egu- neroko bizimodua nabarmen eten zuen.

Ikastetxeetan, gutxieneko zerbitzuak ezarri zituzten Agi- naga zein Zubietako eskoletan baita Udarregi ikastolan ere. Ikastolako langileen gehiengoak azaroaren 30eko grebarekin bat egingo zuela iragarria zuen. "Gobernutik jarritako irizpideek markaturiko gutxieneko zer- bitzuak eskainiko dira Haur Eskolan nahiz Ikastolan", ohar- tarazi zuten ikastolatik.

Udal azpiegiturei dagokie- nez, etenaldia erabatekoa izan

zen. Azaroaren 30ean ez zen hondakinik atez ate bildu Gar- bitaniak ere bat egin zuelako greba feminista orokorrarekin. Larrialdi guneak soilik zeuden zabalik. Gainerakoan, udal azpiegiturak itxita egon ziren: bai udaletxea, Sutegi, Potxoe- nea, Gizarte Zerbitzuak, Gaz- telekua, Oiardo kiroldgia eta Harane. Eguneko Arreta eten zuten baita eta erabiltzaileek baliatzen duten Bidez Bide garraio zerbitzua ere bertan behera utzi zuten.

Euskalgintzak eta kultur- gintzak ere bat egin zuen azaroaren 30eko greba egunarekin; herrian ekitaldirik ez azaroko azken egunean. Etumeta AEK euskaltegia itxita baita. Bertatik ikasleei jakinarazia zientez, "Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba orokorrera- ko deia egin du zaintza publi- ko eta kolektiboaren alde, eta Etumetako irakasleok greba egingo dugu". Euskaltegiokoen berri blogak.eus/etumeta-eus- kaltegia- aek atarian jaso deza- kezue.



Azaroaren 30ean manifestazio bat egin zen eguerdi partean Usurbilen.

NOAUA! Kultur Elkartearen egoitza ere itxita. Grebaren jarraipena egitera mugatu zen hedabideko lan taldea, bai webgune nahiz sare sozialen bidez.

Garraio zerbitzuei dagokie- nean, Usurbilgo Udalaren Bidez Bide zerbitzua bertan behera utzi zutela adierazi dizuegu lerroon bidez. Euskotrenek eta Lurraldebusk, aldiz, gutxiene- ko zerbitzuak finkatu zituzten. Azaroaren 30ean, tren zerbitzua orduro eskaini zuten. Lurral- debusek eguneko lehen orduan, eguerdi partean eta iluntzean

zenbait autobus zerbitzu baino ez zituen mantendu.

Herriko saltokietan aldiz, oso bestelakoa izan zen grebak izan zuen eragina. Kale batzue- tan etenaldia erabatekoa izan zela suma zitekeen, tabernak eta dendak itxita. Beste zonal- de batzuetan, eguneroko mar- txan zabaldu zituzten saltokiak.

Greba feminista orokorraren baitan, Usurbilen egin zen manifestazio amaieran etor- kizunera begirako gakoa zein izango den finkatu zuten: "Aldaketa erradikala eragite- ko, funtsezkoa izango da gure subjektibotasunean aldaketa sakonak sustatzea, pedagogia feminista batetik, genero so- zializazioa eta lanaren bana- keta sexuala eta arrazista desegingo dituen, zaintza- rekiko konpromisoak eta erantzukizunak ekarriko di- tuena, premia eta eskubide kolektibo gisa hartuta, bizi- tzaren hasieratik amaiera arte".

HERRIA EZ ZUEN ERABAT GELDITU, BAINA GREBAK EGUNEROKO BIZIMODUA ETEN ZUEN



Zaintza publiko eta kolektiboaren aldeko greba deitu zuen Mugimendu Feministak.



Greba egin ezin izan zuten zaintzaileei elkartasuna adierazi zieten.

"Ipuin hauetan fantasia asko dago, baina saiatu naiz animalien berezko ezaugarriak ere jasotzen"

AINARA AZPIAZU ADURIZ 'AXPI' IDAZLEA ETA MARGOLARIA

Iaz, Axarkoren abentura plazaratu genuen garai honetan. Gaztetezuzenduriko ipuinak Axpiren sinadura zeraman. Haren segidakoa aste honetako NOAUA!rekin batera jasoko dugu. Honakoan, Axarkoren kuadrillako beste lagun bat da protagonista nagusia: Azkonar. Baratzean eta sagarrak batzen artista den animaliatxo.

Iaz Axarkoren abentura plazaratu zenuen NOAUA!rekin batera. Andatza inguruan bizi den kuadrilla bat irudikatu zenuen baina Axarko izeneko azeria zen protagonista nagusia. Honakoan kuadrillako beste kide bat nabarmenduko da, Azkonar.

Liburu hauek egiteko enkargua jaso nuenean, hasieratik pentsatu nuen animalia kuadrilla bat irudikatu nahi nuela. Eta animalia kuadrilla horretan bakoitzak izaera bat izan zezan, kide bakoitza animalia ezberdin bat izango zela. Izaera ezberdinak dituztenez, afizio ezberdinak dituzte.

Iaz Axarkoren ipuina idazten hasi nintzean, hiru ipuinetako pertsonaiak eta gaiak etorri zitzaizkidan burura. Eta orduantxe definitu nuen nolako izango zen Azkonartxo.

Pertsonaia bakoitzak lotura berezia du Usurbilgo ezaugarri batekin eta Azkonartxo baratzeari lotuta ikusten nuen. Baratzealea egin dut, baina fruituzalea ere bada. Udazkeneko lan horietan trebatuta dago: fruituak bildu, fruituekin kontserbak egin, sagar zukua egin... Kooperatiba hor dago Usurbilen, Jakoba Errekondo ere usurbildarra da... Lotura begibistakoa da.

Axarkoren ipuina plazaratu genuenean, bertako fauna eta bertako landaretza aldarrikatu zenuen. Azkonartxoren bitartez, baratze lana nabarmendu nahi izan duzula esan daiteke, ezta?



Aste honetako NOAUA!rekin batera Axpik idatzitako 'Azkonar' ipuina banatu dugu.

Animalia bakoitza hautatzera koan, zer jaten duten ere kontuan hartu dut. Azkonarrak haragijaleak izateaz gain, barzakijaleak ere badira eta horregatik oso egokia ikusten nuen azkonarra baratze gintzan jar-tzea.

Ipuin hauetan fantasia dago eta fikzioa dago, baina eraberean saiatu naiz animalien berezko ezaugarriak jasotzen. Trikuak adibidez, igerian oso ondo egiten omen du eta horregatik ipini dut triku igerian. Txikitatik animaliak behatzeko ohitura izan dut eta behaketa lan horretan zirrara handiak izan ditut. Umeengan animaliak ezagutzeko gogo hori piztu nahiko nuke ipuin hauen bitartez.

Azkonartxok baratzean aritzea gustuko du. Eta langintza horre-

tan trebatzeko, Jakoba Errekondoren 'Bizi baratzea' liburua oso ondo etorriko zaio. Jakoba Errekondok urteotan egin duen lanari keinu bat egin nahi izan diozula esan daiteke.

Aurrekoan Axarkoren ipuinaren bitartez Zumetari keinu bat egin nion moduan, honakoan Jakoba Errekondoren ekarpena ekarri nahi izan dut gogora. Bertakoa gorapaitzeak

"JAKOBA ERREKONDOK BARATZEGINTZAN EGIN DUEN EKARPENARI KEINU BAT EGIN NAHI IZAN DIOT"

badu bere logika: ipuin hauek Usurbilen sortuak izan dira azken batean, eta usurbildarrentzat idatziak daude. Jakoba Errekondoren 'Bizi baratzea' liburuak Euskal Herrian horrelako arrakastazarra izan duela ikusita, egoki ikusten nuen liburuari keinu bat egitea. Bertako animaliak gorapaitzeaz aparte, bi hankako animaliak gorapaitzeaz ere ez dago soberan. Gure ondare hori sortzen duen jende horri zor zaiola iruditzen zait.

Sagarrak ere ipuineko tramaren parte dira. Errege sagarrak, txalalak, pelestriak, urtebiak... Sagarrak eta sagastiak ezinbestekoak dira Usurbilgo paisaian eta kulturaren.

Gure historia oso lotuta dago sagarrari. Bolada batean Igeldoko baserri batean bizi izan nintzen eta sagardotarako sagasti bat genuen, sagar mota ezberdinekin. Horrela ikasi nuen sagarrak bereizten.

Bestetik, gogoan dut umetan Hernaniko azoka batean izan nintzela, eta sagar mota ezberdin asko zituztela mahai batean bilduta. Eta harrিতa geratu nintzen. Ederra iruditzen zait sagarren inguruan zein mundu sakona dagoen erakustea, eta sagar mota asko daudela azaltzea, bakoitza bere ezaugarri propioekin. Gainera, Usurbilek sagardoarekin duen lotura ikusita, sagarrena aipatzea ezinbestekoa iruditzen zitzaidan. Kasu honetan, ipuineko protagonistek sagar-zukua egiten dute. Ni ere sagar-zukuaren oso zalea naiz.

Azkonartxoren abenturaz gozatzeko garaia da orain. Baina hirukoa osatzeko ipuin bat falta da oraindik, datorren urtean argitaratu emango duguna. Zein izango da datorren urteko ipuinean nabarmenduko duzun animaliatxo? Xurde basurdearena izango da hurrengo abentura. Egia esan, Xurderen pasarteak marrakietara eta hitzetara ekartzeko gogoz nago. Datorren urtean ezagutuko dugu.



Usurbilgo eta inguruetak saltzaileak batu ziren Udazkeneko Azokan.



Produktu ugari aurki zitezkeen salmenta postuetan.

Bertako ekoizleen uztaren erakusgarri

Hurbilagoren Udazkeneko Azoka bertako produktu askoren erakusgarri izan zen eta pizgarri ugari izan zituen.

Frontoiak ezohiko itxura hartu zuen abenduaren 3an. Goizean goizetik, denetariko salmenta postuekin bete zen

kantxa. Produktu ugari aurki zitezkeen batean zein bestean: liburuak, diskoak, jantziak eta modako osagarriak, koa-

dernoak eta boligrafoak, ezta eta eztiarekin lotutako osagaiak, gazta eta bestelako kutixiak, txotxongiloak, zera-mikak, pultserak, pitxiak...

Goiz ederra azokan

Hurbilago Udazkeneko azokak pizgarri gehiago ere izan zituen. Sagardo eta gaztain banaketa, ipuin kontaketa, eskulan tailerra... Bertaratu zirenek goiz ederra pasatzeko aukera izan zuten.

Gaztetxo ugari eskulan tailerrean

Ziortza gazte elkarteak eguerdi partean antolatu zuen eskulan tailerrak arrakasta handia izan zuen. Haur eta guraso asko bertaratu ziren eta une batzuetan postua txiki geratu zitzairen.

Betzaida Urtaza Elizburu ipuin kontalariak ere ikusle asko batu zituen. Dema plazan ipini ziren aulki denak bete ziren.



GABONETARAKO BEREZITASUNAK!



FRESKOAK:

- Baserriko txahal azpizuna
- Entrekota
- Baserriko txahal txuleta
- Behi PREMIUM azpizuna
- Behi PREMIUM txuleta
- Antxume
- Arkume
- Txerrikume
- Iparraldeko hegaztiak
- Iberiko aukera zabalak...

PRESTATUAK:

- Etxeko frijitu aukera zabala
- Onddo eta mouse kutxara
- Marisko salpikoi kopa
- Txahal masai sakutxoak
- Arrai pastela
- Arrai zopa
- Xapoa saltsan
- Txahal masaiak saltsan
- Panetone Siziliarra...

ESKAERAK: telefonoz 943 36 55 81
677 64 27 76 edo email: otargoxo@gmail.com

Otar-Goxo

E l i k a g a i a k



Azokan erosketa egiten zutenek sagardoa dastatzeko aukera zuten.



Dema plazan gaztainak banatu zituzten.



Lizardi liburu-dendakoak izan ziren lan gehien egin zutenak.




Betzaida Urtaza ipuin kontalariaren saioak ume asko erakarri zituen.



Jon Harreguy gazta saltzailea ere bertaratu zen Udazkeneko Azokara.



Bisitari batzuk arropa erosteko aukera baliatu zuten.



Moda osagarriak edota pitxiak aurki zitezkeen Hurbilagok antolaturiko azokan.



Eguerdiko 13:00ak aldera batu zen jende gehien.



Usurbilgo sortzaileen eta ekoizleen produktuekin osatutako otarra abenduaren 3an aurkeztu zuten, Hurbilago Udazkeneko Azokaren baitan. NOAUA

"650 Usurbil Bizi otarra elkarlanaren emaitza da"

Abenduaren 30era arte Hurbilagoko dendetan erosten dutenek 100 otarren zozketan parte hartuko dute.

Iratxe Begiristain, udal zinegotzia: "650 Usurbil Bizi otarren zozketa iaz jarri genuen martxan, bi helbururekin: Usurbilgo ekoizleen zein kultur sortzaileen lana bultzatzea eta herriko saltokietako erosketak sustatzea.

Lehenengo urteko balorazioa positiboa izan zen. 94 ekoizlek zein sortzailek eta Hurbilagoko 18 saltokik parte hartu zuten. Guztira 90 otar banatu genituen. Aurten, errepikatzea erabaki dugu.

650 Usurbil Bizi otarraren ezaugarri nagusienetako bat elkarlana da. Antolaketa el-

karlanean oinarritzen delako. Bultzatzaileengatik hasita: Hurbilago, Kulturgunea eta Udala. Otarren banaketa ere elkarlanean egingo da. Uda-rrégi ikastolako ikasleek abenduaren 30ean osatuko dituzte otarrak, abenduaren 31n banatu ahal izateko".

Juanjo Allur, Hurbilagoren izenean: "Usurbilgo sortzaileen, ekoizleen eta produktoreen ekoizpena hemen duzue ikusgai. Musikariak, idazleak, baserritarrak, sagardogileak, kulturgileak... Ekoizle horien guztien lanarekin osatuko di-

tugu 100 otar eder. Zozketa dagoeneko martxan da eta saltoki bakoitzak lauzpabost otar eder banatuko ditu.

Abenduaren 30ean egingo dugu zozketa eta abenduaren 31n banatuko dira otarrak, eguerdiko 13:00ean egingo den ekitaldi batean.

Ekimen honetan parte hartuko duten saltokiak hauek izango dira: Aizpurua okindegia, Alkartasuna baserritarren kooperatiba, Ane ile-apaindegia, Arruti harategia, Artzabal baserri-jatetxea, Enar estetika, Esnaola janari-denda, Intza ile-apaindegia, Iratzenatur-denda, Laukote okindegia, Laurok liburu-denda, Lizardi liburu-denda, Lurda mertzeria, Ni

ile-apaindegia, Opil-Goxo, Otar-Goxo eta Usurbilgo Optika.

Saltoki hauetan guztietan martxan da zozketa eta abenduaren 30era arte iraungo du. Erosi bertakoa. Bertatik bertara. Usurbilgo dendek ere Usurbilgo ondarearen parte izaten jarraitu dezaten; eta Usurbilgo historia idazten jarrai dezagun, Usurbilgo dendak txikiak bertan direla".

Jontxu Martinez Zarrabeitia, Kulturgunea: "Ekimen honetan Usurbilgo 29 sortzailek eta ekoizlek hartu dute parte. 19 kultur sortzaile ezberdinen lanak daude hemen. Horiekin batera, 10 ekoizleren produktuak batuko ditugu. Jakiz eta sagardoz hornituko dituzte gure otarrak. Eskaintza zoragarria da eta otar hauek lortu nahi badituzue, pasa Hurbilagoko dendak eta establezimendu ezberdinetatik eta bertan zozketan parte hartzeko aukera izango duzue. Beraz, ez galdu aukera eta zorte on guztioi!"

"USURBILGO HISTORIA IDAZTEN JARRAI DEZAGUN, USURBILGO DENDA TXIKIAK BERTAN DIRELA"



Erabili meloia

Gorde erosketa-tiketa

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin



www.kontsumobide.eus






'Konponbiderako giltzak' manifestuarekin bat egin daiteke, QR kodea eskaneatuz. ARGAZKIA: SARE

"Konponbidearen eta elkarbizitzaren ateak zabaldu behar ditugu"

USURBILGO SARE ELKARTEA

'Konponbiderako giltzak' manifestua gizarteratzeari ekin dio Usurbilgo Sarek. Urtarrilaren 13an Bilbon egingo den manifestaziora joateko deia ere egin du. Autobus bat aterako da Usurbildik.

'Konponbiderako giltza' manifestua aurkeztu duzue. Atxiki-menduak batzen ari zarete egunotan. Zein da egitasmo honen helburua?

Manifestu honetan egiten den hausnarketa da presoaren gaia-ekin faseka goazela, nolabait esanda. Oso motel, gure ikuspegitik, baina prozesu horren baitan hau beste urrats bat dela.

Dagoeneko euskal presoak Euskal Herrian daude, Euskal Herriko kartzeletan, eta hori berri on bat da. Duela urte batzuk urruti ikusten genuen baina dagoeneko hemen daude. Baina horrek ez du ekidin euskal presoek jaso izan duten errepresio anitzean kapitulu

berri bat idatzi dela, eta hor gradu erregresioarena aipatu behar da. Lege arrunta aplikatuz gero, gatibu hauek kalean beharko lukete baina gradu aldaketarekin berriz ere behar-tzen dituzte kartzelara sartzea baimen kondizionalak eskuratzen dituztenean. Eta hori ere, ezohiko neurri bat da, euskal presoek kolektiboari aplikatzen zaiona. Honek ez du laguntzen Euskal Herrian egiten ari garen ariketa konplexu horretan (ETA desagertu zenetik erreparazioan eman beharreko urratsak, biktima guztien errekonozimendua eta abar). Horretan ere, ematen du urratsak oso motelak direla.

Konponbideari ateak irekitzeko borondatea ageri da zuen manifestuan.

Manifestuaren bidez adierazi nahi dena da giltzak ariketa bikoitza egiteko balio duela; ateak irekitzeko zein ixteko erabiltzen dela. Kasu honetan, Saretik egiten den irakurketa da garai latz hori guztia giltzape-tu nahi dela, ahaztu gabe eta jakinda zer izan zen, eta

"SINADURAK BATZEKO MAHAITXO BAT IPINIKO DUGU SAN TOMAS AZOKAN"

min horren aitortza eginez. Baina giltzak beste etorkizun bat irekitzeko aukera ere eskaintzen du. Presoen eskubi-deak aitortzeak adibidez, inguruko arazo denak konpon-tzeko pauso garrantzitsu bat litzatekeela uste dugu.

Horren harira, Sarek eragile ezagunengana jo du manifestuaren aurkezpena egiteko. Eta orain, manifestu hau herriz herri ari gara zabaltzen eta herritarrek ere manifestuarekin bat egiteko aukera dute. "Guk ere giltza izan nahi dugu prozesu hau burutzeko orduan", nolabait esatearren.

Manifestua babestu nahi duenak, nola eman dezake bere atxiki-mendua?

Sinadura digitala egiteko aukera dago QR kode baten bidez (argazkian erantsia duzue kodea). Baina ohiko sinadura bilketa, paperezkoa ere egingo dugu Usurbilen. Jendearen atxikimendua jaso nahi dugu eta horrekin irudikatu nahi dugu guk herritarrok ere giltza bihurtu nahi dugula eta giltza horrekin euskal presoek etxerako bidea azkartu nahi dugula. San Tomas azokaren bueltan adibidez (abendua 17an igandea), mahaixko bat ipiniko dugu eguerdi partean.

Urtarrilaren 13rako manifestazio nazionala iragarri duzue Bilbon. La Casillatik abiatuko da, arratsaldeko 17:00etan. Usurbildik autobusik antolatzen duzue?

Hori baino lehen, abenduaren 29a hilabeteko azken ostirala izango da eta, azken ostiraletan egiten dugun bezala, Mikel Laboa plazan elkartuko gara eta Sareren manifestuarekin bat egin dutenekin argazki bat aterako dugu.

Bide batez, urtarrilaren 13an urteroko presoek aldeko manifestazioa antolatu dugu Bilbon eta bertara joateko deia ere zabalduko dugu. Autobusa antolatuko dugu eta betiko tokietan izango da ize-na emateko aukera.



Pilar Alkorta eta Begoña Zubizarreta, urrian Tolosan egin zuten Gipuzkoako txapelketan. NOAUA!

Babarrunak prestatzen, Gipuzkoako sukaldari trebeenak

PILAR ALKORTA ETA BEGOÑA ZUBIZARRETA SARITUAK

Lehenbizi Usurbilen eskualde mailakoa, gero Tolosan Gipuzkoakoa. Hobekien sukaldatutako babarrunagatik saritu dituzte lerrootako bi protagonistak.

Bi sari eskuratu dituzue oso denbora gutxian, ezta?

Begoña Zubizarreta: AGIJUPENS Gipuzkoako pentsiodunen eta jubilatuen elkarteak antolatutako txapelketa. Buruntzaldea mailakoa Artzabalaren egin zen irailean. Bertan lehen saria eskuratu genuen. Handik Gipuzkoa mailakora sailkatu eta urrian Tolosara joan ginen. Han ere, irabazi egin genuen.

Parte hartzen nuen bigarren aldian zen, Pilarrek lehen aldian zuen.

Pozik izango zarete.

B.Z.: Sinestu ezinik. Giro oso ona izan genuen.

Pilar Alkorta: Azoka egiten duten plaza nagusian babarruna sukaldatu eta gero, jubilatuen elkartearen, prestatutakoaren bueltan bazkaria egin genuen.

Zer sekretu ote du zuen babarrunak?

P.A.: Etxean egiten den modukoa da.

"ZEIN DEN SEKRETUA? PAZIENTZIA. POLIKI-POLIKI SUKALDATZEA"

B.Z.: Pazientzia, poliki-poliki sukaldatzea.

Nongo babarruna sukaldatu zenuen?

B.Z.: Usurbilgoan Aginagako Aldapa baserrikoa. Tolosakoan ez dakigu. Antolakuntzak jarritakoa zen.

San Tomas azokako babarrun txapelketan ez zarete izango aurten Pilar.

P.A.: Beti babarruna ekartzen lehenengoa izaten naiz. Aurten, eguraldia tarteko, babarruna horitzen zihola ikusi eta dena galdu zen.

Hurrengo urtean parte hartzeko gogoz?

B.Z.: Bai. Azkenean, AGIJUPENS elkarteak jubilatuen artean ekintzak sustatu nahi izaten ditu. Halako ekimenak antolatzen dira. Animatu dadila jendea parte hartzera. Ekintza gehiago ere izaten dira. **P.A.:** Urrietara ibilaldia egin zen eskualde mailan, jende asko ginen.

Zergatik izan daiteke interesgarria jubilatutako elkarteek antolatutako ekintzetan parte hartzea?

B.Z.: Jendea ezagutu eta harremanetarako. Gure Pakeako juntan nago eta konturatu garena da azkeneko urte honetan, jubilatutako berriak gehiago ari direla apuntatzen, bazkietza egiten eta mugimendu gehiago dagoela. Ekintzetan parte hartu eta harremanetza eskaintzen dute. Nik adibidez, Usurbildik kanpo lan egin izan dut beti. Horregatik, herriko jende asko aurrez ezagutzen dut baina harremanik ez dut. Niri on egin dit elkartearen sartzak, hainbat harreman egin ditut, oso aberasgarria izan da.

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com
600 024 825



Usurbilgo talogileak iragan San Tomas azokan lanean. NOAUA!

Errelebo beharrean

Usurbilgo talogileen egungo taldeak bere ibilbidea amaituztat emango du igandeko San Tomas azokan.

Hamarkada luzeetan herriko hainbat ekimenetan parte hartu eta laguntza biltzen aritu den Usurbilgo talogileen taldea azkeneko aldiz ikusiko

dugu jardunean igandeko San Tomas azokan. Hala izango da, baldin eta herri bilgune honek erreleborik ez badu. 2015etik jardunean diharduen

herritar taldeak amaituztat eman du bere ibilbidea eta erreleborako deia egin nahi dute NOAUA! bidez; "pena litzateke jarraipenik ez izatea". Igandean laguntzera animatu nahi duenak, goizeko 11:00ak aldera postura joateko deia egin diete. Erreleboa hartzeko prest leudekeenei ere haiengana jotzea eskatu dute; "norbaitek ardura hartuko balu, haiei laguntzeko prest geundek". Urtean zehar, lau hitzordu nagusiotan parte hartu ohi dute; Sagardo Egunean, azaroko Artisanu Azokan eta Erle Egunean, baita urte amaierako San Tomas azokan ere.

Eskertza

Eskerrak eman nahi dizkiete urteotan "lanean aritu diren gutziei", Udalarai baita emandako laguntzagatik eta nola ez, "taloak kontsumitu dituztenei". Xehetasun gehiago, datorren asteko aldizkarian.

Ondo hornitu, edertu eta giroturiko San Tomas azoka izango da igandekoa

Zentzumen guztiak dantza batean jarriko dizkigu NOAUA! Kultur Elkarteak antolaturiko igandeko San Tomas azokak. Usaindu, ukitu, dastatu, ikusi eta entzun ahalko dugu. Goiko albistean aipatu moduan, errelebo beharrean diren talogileen jaki goxoak eskuratzearekin batera, gaztaingileak ere bueltan izango ditugu. Haiez gain, nobedade bat; babarruna duten pintxo eder askoak ere probatzeko modua izango da. Eta edateko, herrian bertan ekoitzi eta San Tomas azokako txapelketan lehiatu den sagardoa.

Xiberoko otarrak

Edari preziatu horrekin batera, herrian ekoizitako babarruna ikusgai baita. Aipatu jaki eta edarion sariketa eguerdian izango da. Goizean zehar, adituen epaimahaia ikusiko du-



Denetarikoz postuez ederki hornituriko San Tomas azoka izango dugu igandean.

zue herriko ekoizleen produktuo dastatu, ukitu eta behatzen. Ekitaldi berean, Nafartarrak taldeak aurtengoan, Xiberoko ikastolen alde saldutako hango produktudun otarrekin zenbateko laguntza

jaso den Usurbilen jakinaraziko dute. Ohartxo bat, bide batez; otarrok eskatu dituzuenok, abenduaren 17an frontoian bertan jarriko duten postuan eskuratu ahalko dituzue.

Apaingarrien tailerra haurrentzat

Haurrak adi, eskulanetan jarduteko txokoa izango duzue baita datorren San Tomas azokan; Zirriborro tailerrekoen eskutik, urte garai honetako apaingarriak lantzeko aukera. Pinaburuak dituenek ekar ditzala tailerrera, bestela bertan ere egongo dira.

Izan ere, gabon giroko azoka izango da abenduaren 17koa. Hainbat postu izango dira, ikusmiran aritzeaz gain, erosketak egiteko. Herri ordezkariak izango ditugu hainbat posturen bueltan. Hitzordua Ixabel Agirresarobek aurkeztu eta Ostolaza zein Larrañaga trikitalariek girotuko dute.

Ekitaldiak Santuenean

Abenduak 16, larunbata

• 10:30 'Barreterapia familiar' ludotekan (Santuenea 16, behea).

• Izen-ematea: 10euro. Aurrez egin behar da santueneaguretxikiak@gmail.com helbidera idatziz.

• 16:00 'Festa'. Xake partidak, salmenta postuak (arropa, eskulanak, janariak, kosmetika, argazkigintza...), helduentzako tailerrak, salda, gaztainak...

• 18:00 'Zuhaitzaren argiztapena', Dj Gorka Mendik girotuta.

Abenduak 21, osteguna

• 18:00 San Tomas eguneko txistorra-banaketa Santuenea 12ko egoitzaren aurrealdean.

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkartea.

Laguntzailea: Udala.

Aginaga, Gabon giroan


Abenduak 16, larunbata

• 18:00 Talo eta txistor jana Aginagako Eliza Zaharrean. "Bakoitzak bere taloa egiten ikasteko aukera izango du eta ondoren talo-jana".

Abenduak 23, larunbata

• 18:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Sekaña eta Mitxerkoneko gurutzetatik behera.

• Segidan, Olentzeroren gutun bilketa Eliza Zaharrean.



"Gazteon ardura da gure alternatiba sortzea", dio herrian eseki duten karteletako batek. NOAUA!

Topaketak kontsumo ereduaz

Egungo kontsumo eredu basatia ezbaian jarri eta hausnarketara gonbidatu nahi gaitu Usurbilgo gazte mugimenduak urte amaiera honetan herrira begira antolatu dituen topaketetan. Musika, solasaldiak, katurako tartea eta trukea sustatuko dituen ekimena iragarri dute.

Hasteko, AztarriTruk ekimena antolatu dute abenduaren 23rako. Herritar orori zuzendutako hitzorduan, bigarren eskuko produktuen trukea sustatu nahi dute; saldu, erosi eta bota orde, eman, hartu eta berrerabili, "bigarren bizitza" eskaini, jada etxean izan eta erabiltzen ez ditugun objektuei. Ekimen berri honetarako, aurrez hiru egun finkatu dituzte Sutegiko erakustaretoan nahi duen herritar orok hitzordu horretarako materiala utzi dezan; liburuak, diskak, arropa, oinetakoak, osagarriak... uzteko deia egin dute gazte mugimendutik. Bildutakoa edonoren eskuragarri jarriko dute hilaren 23an.

Sutegin materiala utzi dutenek eta ez dutenek ere frontoiko trukearako eremutik objektuak eskuratzeko aukera izango dute. "Ez dago Sutegin

zertan ezer utzi, gero frontoian hartzeko. Agian hartzeko ez duzu ezer nahi baina Sutegin zerbait utzi nahi duzu, edo uzteko ezer izan ez arren, zerbait hartu nahi duzu". Herrikide orori parte hartzeko gonbita egin diote. Ohartarazi dutenez, abenduaren 23ko trukearako gune horretan geratzen diren bigarren eskuko produktuak berrerabiltzeko beste bide batzuk hautatuko dituzte.

Elkarrekin kantuan

Modu horretan, bestelako kontsumo ereduak sustatu nahi dute, bai ekimen horren bidez, baita aisialdi garaiko beste ospakizunetan ere; abenduaren 24ko poteo orduan esaterako. Izan ere, gabon gaueko afariaren aurretik, tabernetan kontsumitzeko dagoen ohituraren aurrean eta topaketa

hauen testuinguruan Aztarri-Kant ekimenari tartea egitea ezinbestekotzat jo dute. Bada denbora egitasmo hau abiarazi zuela taldetxo batek. Euskarazko abestiak kantatzeko bira da honakoa, entseguetan aritzeaz gain noiz edo noiz kalean kantatzen ere aritu dira. Abenduaren 24ko arratsalde partean herrian barrena bira egitekoak dira. "Herrikideen arteko harremantze polita sortzen da, euskal kulturaren bueltan", gogorarazi dute antolatzaileek, herri osoa hitzor-

**"BIGARREN
ESKUKO
PRODUKTUEN
TRUKEA SUSTATU
NAHI DUTE"**

du honetara gonbidatzearekin batera.

Kontsumoa ertz askotatik

Trukean, kantuan eta kontsumo ereduaren inguruko hausnarketara bideratu nahi ditu baita urte amaiera honetako topaketok Usurbilgo gazte mugimenduak. Horretarako baliatu nahi dute hilaren 26ko eguna; goiz partean, Kafe Tertuliak eguberrietako ospakizunak eta zaintza lotuko dituen jardunaldia iragarri dute. Gabon garaiko kontsumo eredu-ko rolez jardungo dute. Ernairen eskutik, arratsaldean askotariko ertzetatik helduko diote kontsumoaren gaiari, esparru ezberdinetan duen eraginaz hausnartuko dute. Gauean, gazte belaunaldi musikari berriaren emanaldiez gozatzeko aukera izango da.

Usurbilgo gazte mugimenduaren topaketak

Abenduak 15, 17, 19

17:30-20:00 Abenduaren 23ko AztarriTruk ekimenerako material bilketa Sutegiko erakustaretoan.

Abenduak 23, larunbata

11:00-14:00 AztarriTruk Usurbilgo frontoian.

Abenduak 24, igandea

Arratsaldean, AztarriKant herriko kaleetan barrena.

Abenduak 26, asteartea

11:30 Kafe Tertuliak antolaturiko "gabonetan ere nork zaintzen gaitu?" hausnarketa saioa Potxoenean.

18:00 "Kontsumoaren aurpegi ezberdinak" mahaingurua Potxoenean Ernairen eskutik. **Afalostean**, herriko musikarien kontzertuak.

Antolatzaileak: Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanblada, Kafe Tertulia Usurbilgo Neska* Gazte Feministen Taldea, Usurbilgo Ernai.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 670410273.

SALGAI

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko herriaren erdialdean. Interesik izanez gero, idatzi 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren zaintzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiten lan egingo nuke. Goizez edo arratsaldez aritzeko prest. 616273785.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, astelehenetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Astean zehar zein asteburuetan haurrak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Ordu-tegian malgutasuna. 688805307.

BESTELAKOAK

Azaroak 2an Errekatxikin bi giltza topatu ditugu. Galdu badituzu Udaltzaintzan utzi ditugu.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 14	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 15	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 16	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Igandea, 17	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Astelehena, 18	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astearte, 19	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Asteazkena, 20	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Osteguna, 21	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Ostirala, 22	DE MIGUEL Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Larunbata, 23	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 24	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIOZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

HILDAKOAK



Agustina Amigorena Iruetagoiena
Abenduaren
6an hil zen,
94 urte zituela.

Eskubaloitako partidak

Abenduak 16, larunbata, Oiardon:

- 10:00 Infantil mutilak: Usurbil KE A-Amenabar A
- 11:15 Infantil neskak: Usurbil KE-Aiala B
- 17:15 Senior mutilak: Saizar Usurbil KE-Muskiz
- 19:00 Kadete neskak: Usurbil KE-Aloñamendi

Futbol partidak

Abenduak 16, larunbata Haranen:

- 10:30 Infantil mutilak: Usurbil FT-Zarautz KE C
- 12:00 Kadete neskak: Usurbil FT-Antigua Luberrri
- 15:30 Kadete mutilak: Usurbil FT B-Mundaiz SCD
- 17:45 Jubenilak: Usurbil FT B-Antigua Luberrri

Abenduak 17, igandea Haranen:

- 10:00-12:00 Futbol Eskola

Pilota partidak

Abenduak 16, larunbata Aginaga:

- 18:00 Kadeteen Gipuzkoako txapelketa 2. Maila: Pagazpe (Aburuza)-Pagazpe (Pagola)



Pagazpe, finalean. Espainiako pala egokituko III. Txapelketako finalerako sailkatu da Pagazpeko kide Aingeru Semperena. Finala larunbatean, abenduaren 16an jokatuko da, goizeko 11:30ean hasita Iruñeako Labriten. Finalaurrekoak Irunen jokatutako abenduaren 3an. Parte hartzaileen artean zen baita Beñat Lizaso.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 15

TXOKOALDE Sendabelar ikastaroa TxokoarginBideratzailea: Leire Lazkano.
17:30-19:30 Txokoargin.**USURBIL** Literatura emanaldi musikatuaJoseba Sarrionandia, Joxe Mari Iturralde, Iñar Sastre eta Olatz Praten eskutik.
19:00etan Sutegin.**USURBIL** Kantu-afariaIzen-ematea abenduaren 12ra arte: 688 690 361 (Iban).
20:30ean Patrin.

LARUNBATA 16

SANTUENEA Barreterapia tailerra Santuenean

10:30 Ludotekan (Santuenea 16, behe).

SANTUENEA Festa16:00 Santueneko erdigunean.
18:00 Zuhaitzaren argiztapena, Dj GorkaMendirekin.**AGINAGA** Talo eta txistor jana

18:00 Aginagako Eliza Zaharrear.

IGANDEA 17

USURBIL San Tomas azoka Eguerdian, frontoian.**USURBIL** 'Pause' film laburra 18:00etan Sutegin.

Abenduaren 15ean ospatuko dute kantu-afaria, Patri jatetxean.

Kantu-afaria, ikasturtea agurtzeko

Urtarrilean ikasturte berriari ekin aurretik abesten eta afori baten bueltan agurtu nahi du aurtengoa Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Horretarako antolatu dute ostiral honetako, abenduaren 15eko kantu-afaria Patrin.

Abenduak 15, ostirala

- 20:30 Kantu-afaria Patrienean.

- Gonbidatuak: Asteazkenekoak kantu taldea, akordeoi eta arrabita joleekin.
- Izen-ematea: 688 690 361 (Iban). Abenduaren 12ra arte zegoen izena emateko epea.
- Menua (25 euro).
- Antolatzaila: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.
- Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta NOAUA! Kultur Elkartea.

Orbeldiren urte amaierako saioa

Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etan hasita, Xabier Lizardiren 'Bihotz-begietan' liburuko poesia eta Gipuzkoako euskal dantza tradizionala elkartuko dituzte Sutegiko auditorioan. Emanaldirako sarrera doakoa izango da.

"Pause" film laburraren aurkezpena

Enara Tejasaden ikus-entzunezko lan hau proiektatzearekin batera, bertako aktore Amaya Quiroga aktorearekin eta Enara Tejasad zuzendariarekin solasaldia iragarri dute igandean, abenduaren 17an, 18:00etan Sutegin. Horrez gain, Izaskun Lapaza dantzariaren eta Enara Tejasad ko-oreografoaren ikusizuna programatu dute. 'Emakhari' izeneko zine-dantza ere iragarri dute Iurre Aranburu zuzendariarekin. Sarrerak doan eskuratu ahalko dira aurrez, usurbilkultura.eus plataforman.

Sendabelar ikastaroa

Abenduaren 15ean 17:30-19:30 artean, Txokoargi elkartearen, Leire Lazkanok bideratuko duen hitzordurako izena aurrez eman beharko da, 619 591 849 telefono zenbakian (16:00-18:00 artean).

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljattetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

Instagram and Facebook icons.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

ILARGIAREN EGUTEGIA 2024



Alkartasunaren dendan salgai eta
on line www.alkartasuna.eus webgunean



Jakoba Errekondok garalko uztak eta baratzea,
fruitu arbolak, lorategia eta basoko lanak.
Xabier Ormaetxea Aklzuk ilargiaren eragina eta saloak.
Maria Thunen egutegi biodinamikoarekin osatua.



TXIRIBOGA TABERNA

Ondo pasa
Gabonetan!

GABONETARAKO ESKARI BEREZIAK PRESTATZEN DITUGU!

- Arrai zopa
- Txapiroiez betetako pikilo piperrak
- Txapiroiak (pelaio erara)
- Kroketak (urdaiazpiko eta onddoenak)
- Legatza saltsa berdean
- Bakaioa (bizkaitar erara)
- Txekor masailak
- Arkumea saltsan
- Etxeko Foie "Mi cuit-a"

eta berezitasun gehiago!!! galdeiguzu eta egin zure eskaera!!!

(24 eta 25erako eskaerak, 19an beranduenez. 31 eta 1erako eskaerak 26rako beranduenez)

943 21 88 40 IRAZU KALEA 6, USURBIL

650
USURBIL
bizi

gabonetako

Otarra

**Erosi herrikoa,
bertatik bertara.**
eta parte hartu
otarraren
zozketan!

abenduaren
4tik **30**era

Zozketa abenduaren 30ean egingo da.



Beste mundu bat posible da.

650
USURBIL
bizi

Ez galdu aukera!

100
otar

zozketatuko ditugu!

Sari banaketa frontoian izango da,
abenduaren 31n
13:00etan

Eraman herriko produktuz betetako otarra.